

ATZIZKIAK

Zer adierazten dute atzizkidun hitz hauek? Denbora, lekua edo modua?

Liburutegi	arrastaka	gosete
lasterka	saltoka	entzunaldi
oporraldi	eurite	gozotegi
harategi	hitzaldi	haizete

Osatu esaldiak aurreko ariketako hitzak erabiliz.

- _____ra joango naiz liburu bat aukeratzera.
- _____a bukatu da! Bihar eskolako lehenengo eguna izango da.
- Atzo musika _____ batera joan ginen.
- Xabierren amak publizitatearen inguruko _____ bat eman zuen.
- Zelako _____a! Zuhaitz pila erori egin dira.
- Matxinsaltoa _____ ibiltzen da alde batetik bestera.
- Gaur _____ra joan behar naiz bi oilasko erostera.
- _____ak zeudenean, Nilo ibaiak gainezka egiten zuen

Osatu hitzak atzizki hauek erabiliz: -ka, -tegi, -ki, -aldi, -te, -keta

- | | | |
|---------------|----------------|---------------|
| • Korri_____ | • Konpon_____ | • Liburu_____ |
| • Gose_____ | • Esne_____ | • Garbi_____ |
| • Txerri_____ | • Irakur _____ | |
| • Entzun_____ | • Inurri _____ | |

DETERMINATZAILEAK: ZENBATZAILEAK ETA ERAKUSLEAK

Bilatu esaldi hauetako determinatzaileak eta aukeratu zenbatzaileak edo erakusleak diren.

- Pastel batzuk ekarri ditut.
- Etxe horiek oso politak dira.
- Gazte asko etorri da.
- Gaztelu horretara joan ginen pasaden asteburuan.
- Bi liburu erosi ditut.
- Emakume gutxi gerturatu dira.
- Etxe hartan bikote alemaniar bat bizi da.
- Hamar gailera jan ditut gosaltzeko.
- Ume horrek hamar urte bete ditu.
- Hainbat lagun joan ginen festara.

Bilatu zenbatzaileak eta aukeratu zehaztuak edo zehaztugabeak diren.

- | | |
|----------------|------------------|
| • Bost txakur | • Lagun batzuk |
| • Hainbat katu | • Irakasle askok |
| • Zenbait urte | • Hitz gutxi |
| • Hamar lagun | |

Osatu esaldiak erakusle egokia erabiliz.

- Neska (hau) _____ beroki gorri bat erosi du. (NORK)
- Mendi _____ (hori) igo ginen atzo. (NORA)
- Ume _____ (hura) motxila desagertu zaio. (NORI)
- Etxe _____ (hura) bizi naiz ni. (NON)
- Mutiko _____ (hori) liburua da hau. (NOREN)
- Lagun _____ (hau) joango naiz zinemara. (NOREKIN)
- Txakur _____ (hori) kaka egin du espaloi erdian. (NORK)
- Bide _____ (hura) etorri gara. (NONDIK)
- Beroki _____ (hau) kolorea oso polita da. (NOREN)
- Zartagin _____ (hori) frijituko ditut arrautzak. (NON)

LABURDURAK ETA SIGLAK

Lotu laburdurak:

jauna	esk.
kalea	k.
eskuina	adib.
adibidez	or.
orrialdea	jn.
ezkerra	ezk.
zenbakia	pl.
eta abar	etab.
plaza	zk.

Idatzi asteko egunen laburdurak:

astelehena:	asteartea:	asteazkena:	osteguna:
ostirala:	larunbata:	igandea:	

Idatzi siglak erabiliz:

- Euskal Autonomia Erkidegoa:
- Eusko Jaurlaritza:
- Ameriketako Estatu batuak:
- Euskal Irrati Telebista:
- Europar Batasuna:

INTERJEKZIOAK

Markatu esaldi hauetako interjekzioak.

- - Ondo bizi zinen zu, e! - Bai, horixe!
- Hara! Begira nor datorren!
- Ene! Nora zoaz maleta handi horrekin!
- Aupa! Zer moduz?
- Utikan! Ez zaitut hemen ikusi nahi.
- - Egingo duzu hori? - Jakina!
- Et, et, et! Egon zaitetz geldi, etxerako lanak bukatu behar dituzu.
- Zer demontre! Nork apurtu du leihoa?
- Ala! Zelako marrazki polita!
- Ai ene! Autobusa galdu dut eta eskolara berandu iritsiko naiz!
- Kontxo! Zer egiten duzu zuk hemen!
- Adi! Bihar goizeko 9:00etan hartuko dugu autobusa.
- -Non dago Jon? - Auskalo!
- - Arratsaldean ez naiz lanera joango. - Hara bestea!
- Ez naiz haraino joango, ez horixe!
- Ea ba! Hasi lanean!
- Ospa! Oso haserretuta nago zurekin.
- Ixo! Liburutegian ezin da hitz egin.

Osatu esaldiak interjekzio hauek erabiliz.

Bai zera! Aizu! Kontuz! Gaixoa! Alajaina!

- _____ futbolera jolasten hanka apurtu du.
- _____ txakurra aske dago eta!
- - Loteria irabazi dut! - _____
- _____ ez ahaztu bihar goizeko 8:00etan gelditu garela.
- Bostgarren aldiz munduko txapeldun izan da. _____

IZENONDOAK (ADJEKTIBOAK)

Bilatu izenondoak. Graduatzaileak ere markatu. Ondoren, aukeratu: izenondoa, askatua, errepikapenezkoa edo itsatsia.

- Datorren ikasturtean ikaslerik nagusienak izango gara.
- Niri ez zait piper berdea gustatzen.
- Bihar eguraldi txarra egingo duela entzun dut.
- June eta Aitor izugarri azkarrak dira.
- Zer nahiago duzu ura ala txokolate beroa?
- Nire oheko koltxoia gogorregia da.
- Atzo bazkari gogo-goxoa izan genuen.
- Klasean ni naiz ikaslerik gazteena.
- Gaur zerua erabat urdina da.
- Gizon hori oso jakintsua da.
- Anai-arreben, artean ni naiz nagusiena.
- Finlandiako neguak hotzegiak dira.
- Mikel ilegorria da.
- Lore hori polit-polita da.
- Hondartza hori ederrena da.
- Igerilekua nahiko handia da.
- Guztiz lainotuta dago gaur zerua.
- Tenperatura oso altua izango da hurrengo egunetan.
- Izugarrizko hotza egingo du asteburu honetan.
- Boligrafo urdina hartu dut.

ORTOGRAFIA: IN ETA IL

Osatu hitz hauek in, il edo ll erabiliz:

- ____auteriak
- bi ____etea
- is ____la
- maki ____ajea
- ist ____u
- astak ____oa
- art ____ea
- ba ____uontzia
- z ____larra
- torti ____a
- aspir ____a
- burd ____a
- letag ____a
- gurp ____a
- te ____atua
- aurkitza ____e
- ba ____a
- s ____adura
- o ____ategia
- ko ____ara
- mar ____ela
- trikima ____ua
- ____urria
- atseg ____a
- buzt ____a